

ESALDI BAT MUSIKA-TALDE BAKOITZARI

Zein esaldi dagokio musika-talde bakoitzari? Idatzi izena bakoitzaren ondoan.

1. 2011. urtean sortu zen, Mungian; 80ko hamarkadako new wave estiloan inspiratuta.

2. Etxebarriko rap abeslaria da.

3. Arabako Ekora herrian sortu zen, 2005ean.

4. Bilbon sortu zen arren, sei gipuzkoarrek osatzen dute.

5. Abesti gehienak ingelesez egiten badituzte ere, euskaraz ere aritzen dira.

6. Lekunberrin 1994an sortutako rock estiloko musika-hirukotea da. Hamabi disko, bilduma-lan bat eta dokumental bat argitaratu ditu.

7. Ska-folk estiloa jotzen dute.

8. Nahiz eta oso gazteak izan, eta garai hartan album luze bakarra zuten arren, jaso zituzten kritika bikainek potentzial handiko taldeztat jo zuten Euskal Herriko zein Espainiako agertokietan.

9. Euskal Herriko emakumezko rap-abelari bakarrenetakoa izan zen.

10. Hasiera apala izan zuten arren, berehala ireki zitzaizkien kontzertu eta agerraldi askotako ateak.

11. Hasieran gaztelaniaz abesten bazuen ere, gaur egun euskaraz ere aritzen da.

12. Lehen agerpena 2016ko martxoaren 8an izan zen. Bertan, "Harro gaude" kantuarekin, oholtza gainera salto egin zuten lehen emakumeak omendu zituzten.

13. 2012an Euskal Irrati Telebistako maketa lehiaketa irabazi zuten, eta Radio 3en hirugarren geratu ziren. Horrek BBK Live festibalean jotzeko aukera eman zien.

14. Ska-rock musika jotzen badute ere, reggae eta punk-rock doinuak ere sartzen dituzte.

15. Euskal Herritik kanpo oihartzunik handiena izan duen rock-metal taldea da, eta maitasunetik amorrurainoko sentimenduak jorratu izan ditu.

16. Nahiz eta hasiera batean ingelesezko bertsioak egiten zituzten eta lokal txikietan jotzen zuten, laster garatu zuten beren estilo propioa.

17. Milaka eta milaka jarraitzaile izan arren, 2019an etenaldi mugagabea iragarri zuten.

18. Taldeak ukitu elektronikoekin nahasten du post-punka.
